



KAPSAIZINA BIDEZKO TRATAMENDUAREN OSTEKO ZAINKETAK

- Lehenengo **2 edo 3 egunetan**, tratatutako eremua sentikorrago egon daiteke. Egin itzazu zainketa hauek:
 - o Inguruan berorik ez eman.
 - o Ur epela erabiliz garbitu.
 - o Eremua uretan ez murgildu (igerilekua, bainuontzia...).
 - o Eguzki-argi zuzena saihestu.
 - o Ez egin ariketa gogorrik.
 - o Ez eman gelik edo kremarik.
- Baliteke gune horretan gorritasuna, sumindura eta erremina nabaritzea: kasu horretan, hotz lokala jarri behar da tarteka (gel-poltsak).
- Ez ukitu ingurua eskuak erabiliz.
- Tratamendua eskuetan bada, eskularruak erabil ditzakezu jarduera batzuetarako: janaria prestatzeko, garbitzeko, orrazteko...

Zalantzarik edo kontsultarik baduzu, jarri harremanetan telefonoz

Onkologiako edo hematologiako kontsultako erizain erreferentea

Orduategia: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara

Qontigo: *Qutenzarekin* tratamenduan dagoen pazienteari laguntzeko programa.

Orduategia: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 20:00etara: **900 921884**.